


ARGI MAHAIAREN

ESKULIBURUA

JARDUERAK

PROMOZIORAKO
MATERIALA



IBAIZABAL

Koloreak sortzen

Jardueraren aurkezpena

- Argi mahaia ingurune magikoa, manipulatioa eta ludikoa sortzen du Haur Hezkuntzako ikasgeletako ikaskuntzarako. Jarduera honekin, haurrek motrizitate fina landuko dute eta, esperimentu baten bidez, koloreen nahasketa eta haren jatorria ezagutuko eta esperimentatuko dute.

Materialak

- Argi mahaia
- Plastikozko estalkia edo erretilu gardena
- Plastikozko ontziak edo edalontziak
- Zenbait neurritako xiringak
- Tenpera gorria, urdina eta horia
- Kotoizko diskoak

Jardueraren garapena

Hasi aurretik, estali argi mahaia plastikozko estalki batekin, edo, bestela, jarri erretilu garden bat gainean, tenpera ustekabearen eroriz gero babesteko. Azaldu umeei kolore primarioak nahastuko ditugula jardueran (gorria, horia, urdina), hutsik dauden ontzietan, eta hala, kolore sekundarioak lortuko ditugula (laranja, berdea, morea).

1. Jarri argi mahaian sei ontzi garden: hiru hutsik eta hiru urez beteta. Bota tenpera gorria, horia eta urdina ura duen ontzi bakoitzean.
2. Eskatu ikasleei betetzeko xiringa koloreetako batekin, hutsik dagoen ontzira botatzeko eta, jarraian, gauza bera egin dezatela beste kolore batekin. Lagundu xiringa kargatzea eta hustea kostatzen zaienei, eskuen abilezia lortu arte, baina praktikatu egin behar dute eta saiakuntza-errorearen bidez ikasi behar dute.
3. Animatu koloreak nahastean zer gertatu den azter dezaten, eta hitz egin dezatela egin duten prozesuaz eta lortu duten emaitzaz. Begiratu nahasketei argi mahaia piztuta eta itzalita. Alderatu emaitzak.
4. Kolore nahasketa amaitutakoan, banatu umeei kotoizko diskoak. Esan jartzeko argi mahaia gainean eta esperimenta dezatela xiringekin bustita, kolore anitzeko sorkuntzak egiteko.

Argi mahaian egiteko jolasak

Jardueraren aurkezpena

- Frogatuta dago motibazioaren eta harriduraren bidez, umeen interesetatik abiatuta eta manipulazio jarduerekin lortzen dela ikaskuntza esanahiduna eta iraunkorra. Ikasle asko frustratu egiten dira paperarekin eta arkatzarekin lanak egitean. Hala ere, grafomotrizitate jarduerak eta jarduera logiko-matematikoak argi mahaian eginda, jarduera normalak izatetik, harrigarri izatera pasatzen dira. Horrek ikasleak erakartzen ditu, eta haien arreta eta kontzentrazioa hobetzen du. Gainera, nahi adina aldiz ezabatu eta errepikatu daitekeenez, autozuzenketa, ekintzaile sena eta autoestimua sustatzen da.

Materialak

- Argi mahaia
- Ibilbideen txantiloak
- Bideak
- Labirintoak eta sudokuak
- Kontagailu zeharrargiak
- Klarion errotuladoreak
- Ezabatzeko zapi hezea

Jardueraren garapena

- 1. Bideak eta labirintoak.** Egin eta plastifikatu bideak eta labirintoak dituzten txantiloak, eta jarri argi mahaia gainean. Eman kontagailu zeharrargiak umeei, eta eskatu jar ditzatela bideetan edo labirintoetan, ibilbide zuzena egiteko. Gero, bidea errotuladore batekin gainetik marraztu dezakete eta nahi adina aldiz ezabatu. Jarduera honek gainbegiratzea eskatzen du, baina, egunak pasatu ahala, gutxitzen joan daiteke; hala, ikasleek erabaki dezakete bideak kontagailuekin edo errotuladoreekin egin nahi dituzten.
- 2. Sudokuak.** Egin sudoku errazen txantiloak koloretako zirkuluekin, eta plastifikatu. Azaldu ikaskideei zer den sudoku bat eta nola jolasten den. Lauki sarea kontagailu zeharrargiekin edo koloretako fitxekin osatzea da helburua, ilara edo zutabe berean kolorerik errepikatu gabe. Animatu jolastu dezaten.
- 3. Segidak.** Marraztu gardenkietan errotuladore iraunkorrekin irudi geometrikoak edo aurpegiera desberdineko aurpegiak, bi, hiru edo lau elementuko segidak egiteko, mailaren arabera. Jarri argi mahaian patroiaren eredu bat, halakorik behar izanez gero.